




IZARREN HAUTSA EGUN BATEAN

Jatorrizko bertsoetan zortzi puntukoa zen, lau errimekin.

Doinuen sortzaileak: Mikel Laboa eta Xabier Lete.

Bertso honen egilea: Xabier Lete (1944 Oiartzun - 2010 Donostia, Gipuzkoa).

Poema bakarraz, bi kantu ezagun

“Izarren hautsa” poema Xabier Letek argitaratu zuen “Bigarren poema liburua”-n, 1974an. 1975ean Mikel Laboak kantu bihurtu zuen Leteren poema, “Ikimilikiliklik” ikuskizunean jendaurrez (1975-1978). Ostean, Xabier Letek bere poemaz kantu berria egin zuen; “Kantatzera noazu” kasetean jaso zuen (Elkar, 1976). 1980an Mikel Laboak bere bertsioa “Lau / Bost” diskoan grabatu zuen..

Doinua bertso plazara

Bat-batean Igor Elortzak baliatu zuen lehen aldiz Mikel Laboaren doinua, 2009ko Txapelketa Nagusian (Tolosan, Gipuzkoan). Doinua eta errimen erabilera egokitu zituen Elortzak, hamar puntuko bertsoa bihurtuz, hiru errimekin. Leteren poema zortzi puntukoa da, lau errimekin.

Izarren hautsa egun batean
bilakatu zen **bizigai**,
hauts hartatikan uste gabean
noizpait ginaden gu **ernai**.
Eta horrela bizitzen gera
sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu **gabe**:
lana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera
gogorki loturik **gaude**.

